

.EUS, karaktere 1 eta 2ko domeinuen erregistroa

.EUS domeinuan 1 eta 2 karaktereko domeinu-izenak erregistratzeko aukera zabaltzen da. Hona hemen prozesuaren baldintzak eta ezaugarriak:

Baldintzak


- .EUS erabiltzen duten 1 eta 2 karaktereko domeinu-izenak, adibidez: a.eus edo aa.eus
- Domeinu horiek ez dute markaren babes-baliorik, hau da, ezin dira erregistratu eta *Defensive* gisa erabili (*DNSek* erantzun eta edukia izan behar dute).
- PuntuEUS Fundazioak edozein unetan ezaba dezake domeinu bat erabilera desegokiagatik.
- Epe irekian erregistratutako domeinuen kasuan (marka, administrazio publikoa, komunitateko kidea...) erreklamazioa jasoz gero, eremu horretako gatazka bideratu ahal izango da, *applications* aldian ezarritako irizpideak kontuan hartuta.

Prezioa

- Prezioa ohiko .EUS domeinu-izenen prezioa baino handiagoa izango da, bai altetarako eta bai berritzeetarako ere.

Prozesua:

- "1and2characters" izeneko berariazko *Applications* fase bat irekiko da, abiarazte-aldian egin zen bezala. Bi aldi izanen dira:
 - o **Applications aldia (5 aste):** erregistratzaileak erregistratu nahi dituzten domeinu-izenak *applications* sistemara igoko dira, eta 5 aste epea izango dute horretarako. Bost aste horiek amaitutakoan, PuntuEUS Fundazioko taldeak eskabideak berrikusi, onetsi edo ezeztatuko ditu, ezarritako irizpideen arabera (astebete gehiago).
 - o **Aldi irekia.** Epe horretan, edozein erabiltzailek 1 edo 2 karaktereko domeinu-izena erregistra dezake, eta horretarako baldintza espezifikoak onartu.z



Esleitzeko irizpideak

Applications aldian domeinuak irizpide hauen arabera esleituko dira:

1. Lehen kategoria: **Euskara eta/edo euskal kultura sustatzeko berariazko bokazioa duten eskatzaileak:** Euskal hizkuntza edo kultura sustatzeko berariazko bokazioa duten pertsona fisiko edo juridikoak, euskara bertako hizkuntza den eremuetan eskumenak dituzten administrazio publikoak barne, honako hauek erregistratzen dituztenak: (i) beren izenak (horien aldatetak edo laburdura argiak barne); (ii) sareko zerbitzuak; (iii) beste TLD batzuetan erregistratu eta eraginkortasunez erabili dituzten domeinu-izen berberak.
2. Bigarren kategoria: **Tokiko marken erregistroa:** Euskara bertako hizkuntza den lekuetan (hau da, Espainiako edo Frantziako marka komertzialak, Europako Batasuneko marka komertzialak eta Espainian edo Frantzian eragina duten JIMEren nazioarteko markak) eta (ii) nazioarteko legeek onartutako adierazpen geografikoak, Europar Batasunekoak, Espainiakoak, Frantziakoak edo Euskadikoak, beti ere Euskadiko tokiko markei lehentasuna emanez.

Salbuespenak

Gaur egun, karaktere bateko edo biko domeinu hauek erregistratuta edo blokeatuta daude:

- AU
- EZ
- EH
- EP
- EB
- EZ
- UN

Nolanahi ere, PuntuEUS Fundazioak baldintza orokorrak edozein unetan aldatzeko eskubidea gordetzen du.

Datak

- Aplikazioen aldia: Irailaren 14tik (13:00 UTC) – 2020ko urriaren 15era (13:00 UTC)
- Berrikuspena: 2020ko urriaren 16tik urriaren 25era
- Aldi irekia: 2020ko urriaren 26tik aurrera (13:00 UTC)